

eman ta zabal zazu



Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea

BILBOKO  
HEZKUNTZA  
FAKULTATEA  
FACULTAD  
DE EDUCACIÓN  
DE BILBAO

# PRACTICUM I GIDA GUÍA PRACTICUM I

Gizarte Hezkuntzako Gradua  
Grado en Educación Social

[www.ehu.eus](http://www.ehu.eus)

EDIFICIO ERAIKINA  
Laborategiak  
Laboratorios  
Gimnasio  
Gimnasio  
Idazkaritza  
Secretaria

Universidad  
del País Vasco  
Euskal Herriko  
Unibertsitatea

## Aurkibidea

1.GIZARTE-HEZKUNTZAKO PRACTICUMA: HELBURUAK.....	3
2.PRACTICUMAREN ANTOLAKETA-EGITURA BILBOKO HEZKUNTZA FAKULTATEAN .....	5
3.PRACTICUM I-AREN GARAPENA .....	5
4.PRACTICUM I-AN BETE BEHARREKO DOKUMENTAZIOA.....	13
5.PRACTICUM I-AREN EBALUAZIOA.....	14
6.ERANSKINAK.....	16

## 1. GIZARTE-HEZKUNTZAKO PRACTICUMA

Practicuma banakako jarduera akademikoa da, eta guztira 42 ECTS kreditu ditu (1.050 ordu, ikus 1. taula). Hiru ziklotan banatzen da: Practicum I, II eta III, bakoitzak gestio [egutegi](#) bat dauka eta lan pertsonala, praktiketako zentroko jarduera eta fakultateko prestakuntza eta tutoretza antolatzeko eta koordinatzeko aukera ematen du.

**1. Taula.** Practicuma ikastaroaren, moduluaren, kredituen eta orduen arabera.

	Kurtsua	Modulua	Kredituak	Ordu presentzialak	Ordu ez-presentzialak
PRACTICUM I	3	5	12 ECTS	300	90
PRACTICUM II	4	7	12 ECTS	300	90
PRACTICUM III	4	7	18 ECTS	330	120

Practicuma hainbat dekretu eta araudiren bidez arautzen da, eta zalantzarik izanez gero, komeni da horiek kontsultatzea<sup>1</sup>. Practicuma funtsezko elementua da Gizarte Hezkuntzako Graduaren ikasketa planaren barruan, eta ikasleak laneko jardunera hurbiltzen saiatzen da, testuinguruan oinarritutako esperientzia praktikoa sustatuz. Practicumaren bidez, ikasleak hezkuntza eta gizarte errealitatera hurbildu eta errealitate horretan integratzen dira, ondoren beren lanbide jarduna izango denari behatuz, aztertuz eta gogoeta kritikoa eginez.

Practicumeko jarduera eremu potentzialak herritar guztiei zuzenduta daude, eta arreta berezia eskaintzen zaie gizarte egoera ahulean dauden pertsonari eta taldeei: haurrak, nerabeak, gazteak, helduak, adinekoak, gutxiengo etnikoak, emakumeak, drogen mendekoak, dibertsitate funtzionala duten pertsonak, migratzaileak... gizarteratzeko, laneratzeko eta kultur integrazioarako zailtasunak dituzten taldeak, eta, oro har, komunitatea. Ondoren, horietako batzuk aipatzen dira: Haur eta nerabeekin

<sup>1</sup> [2019ko Uztailak 24ko erabakia](#), Euskal Herriko Unibertsitateko Ikasleen Kanpoko Praktika Akademikoen Araudi Erregulatzailea onartzen duena, 2019ko uztailaren 12ko Gobernu Kontseiluan onartua, uztailak 11ko [Errege Dekretua 592/2014](#), UPV/EHUko Kudeaketa Akademikoko Araudia, IX. kapitulua, 72. artikulua, graduco practicumaren oinarritzko alderdiak definitzen eta antolatzen dituena eta, [Practicumaren Araudi Orokorra, Fakultateko Batzarrak onartua](#), 2021eko uztailaren 6an onartua.

gizarte eta hezkuntza arloan esku hartzea, babes-sistemetatik abiatuta: haurrak eta nerabeak (18 urtera arte).

- ✚ Gizarte eta hezkuntzako esku hartzea haurtzaroan eta nerabezaroan, babes sistemen esparruan: haurrak eta nerabeak (18 urtera arte). Gizarte eta hezkuntzako esku hartzea nerabezaroan, gazteen justiziaren esparruan: 14 urtetik 18 urtera arteko nerabeak .
- ✚ Esku hartzea gizarte eta kultura eremuetan eta aisiaren dinamizazioan: haurrak eta nerabeak (18 urtera arte).
- ✚ Gizarte eta laneko esku hartzea: komunitatea, oro har.
- ✚ Esku hartzea helduen etengabeko prestakuntzan.
- ✚ Esku hartzea gizartetik baztertuta edo arriskuan dauden helduen kasuan.
- ✚ Esku hartzea drogazaletasun kasuetan: toxikomanoak eta komunitatea, oro har.
- ✚ Esku hartzea indarkeria matxistaren biktima diren emakumeen kasuan.
- ✚ Esku hartzea dibertsitate funtzionala duten pertsonen kasuan.
- ✚ Esku hartze komunitarioa: baliabideak eta zerbitzuak eta komunitatea, oro har.
- ✚ Gizarte eta hezkuntzako esku hartzea ingurumenaren esparruko hezkuntzarako: komunitatea, oro har.
- ✚ Gizarte eta hezkuntzako esku hartzea osasunaren esparruko hezkuntzarako: komunitatea, oro har.

Lehen aipatutako eremu guztietan garrantzitsua da kontuan hartzea [deontologia-kodea](#), bertan, lanbidearen jardunaren eta arauketaren printzipioak ezartzen dira eta.

Practicumaren aldi osoa amaitu ondoren (I-II-III), ikasleek lanbide-gaitasun hauek eskuratzea espero da:

- ✚ 1.- Profesionalki esku hartzea gizarte-hezkuntzako testuinguruetan, gizarte-hezkuntzarekin lotutako diziplinen oinarri teoriko-praktikoak kontutan hartuz, eta oinarri etikoak eta deontologia profesionala errespetatuz.
- ✚ 2.- Bere Hezkuntza ekintzez arduratzea, lanbide-nortasuna aitortuz eta gizarte-hezitzailearen lanbide-funtzioak betez.
- ✚ 3.- Ikerketa eta praktikaren analisiaren bidez, gizarte-hezkuntzaren izateari eta lanbide-egiteari buruzko ezagutza elkarlanean eraikitzea.

- 4.- Gizarte-hezitzaileen lan profesionalari buruzko eta hura murgilduta dagoen erakundeetako kulturari buruzko hausnarketak modu arrazoituan komunikatzea, idatziz zein ahoz.
- 5.- Gizarte hezkuntzaren esparruetan gizarte eta Hezkuntza ekintzako proiektuak planifikatu, garatu eta ebaluatzea, gogoeta eginez, eta errealitate jakin baten diagnostikoaren ondorioak erreferentziatzat hartuta.
- 6.- Hezkuntza eta gizarte prozesuak, testuinguruak eta baliabideak aberasteko eta hobetzeko hezkuntza proposamenak, eta tresnak egitea.
- 7.- Diziplina arteko eta erakunde arteko taldeetan lan egiteko gaitasuna.


## 2. PRACTICUMAREN ANTOLAKETA-EGITURA BILBOKO HEZKUNTZA FAKULTATEAN

Practicumari buruzko zalantzak argitzeko zein pertsonarengana jo behar duzun:

- Gizarte Hezkuntzako Practicumeko dekanordea: Maria Dosil ([bhf.practicum-gh@ehu.eus](mailto:bhf.practicum-gh@ehu.eus))
- Practicum-eko administratzailea: Mónica Arostegui ([bhf.practicum@ehu.eus](mailto:bhf.practicum@ehu.eus))
- Practicum I-eko koordinatzailea : Naiara Ozamiz ([naiara.ozamiz@ehu.eus](mailto:naiara.ozamiz@ehu.eus))

## 3. PRACTICUM I-AREN GARAPENA

Practicum I- 5. moduluan sartzen da, "jasangarritasunerako dinamizazio soziala eta garapen komunitarioa" izenekoan. Modulua egiturak nahitaezko lau irakasgai ditu, eta MDJ-ko diziplinarteko jardura (ikus 1. irudia).



### 1. Irudia 5. modulua egitura Gizarte Hezkuntzako Graduan

2. taulan, I. practicumeko ordu presentzialak eta ez-presentzialak ageri dira, banakatuta.

## 2. Taula Practicum I-eko ordu presentzialak eta ez-presentzialak

Practicum I	Presentzialak	Ez Presentzialak
Orduak: 300	210	90

Laburbilduz:

### Ordu presentzialak

- Erakundeko ordu presentzialak irailaren 13tik urriaren 27ra bitartean egingo dira (180 ordu<sup>2</sup>-6 o/e-). Praktikak egiteko **ordutegiak** praktiken ezaugarrien eta entitate laguntzailearen baliabideen arabera ezarriko dira.

Gainerako ordu presentzialak honetarako izango dira: Hasierako prestakuntza (irailaren 11n).

- Lehen tutoretza mintegia, practicumaren zalantza orokorrak, kudeaketa eta entitaterarekiko azken harremanak praktikak hasi aurretik (irailaren 12an)
- Talde-tutoretzako jarraipen mintegiak (irailaren 25etik 29ra bitarteko astea) eta amaiera (urriaren 23tik 27ra bitarteko astea).<sup>3</sup>

*\*\*\*tutoretza mintegiak 3 ordukoak izango dira gutxienez, eta 5 ordukoak gehienez.*

### Ordu ez-presentzialak

- Lan autonomia, Practicuma egiten hasi aurretik, egiten den bitartean eta egin ondoren. Azken memoria egitea, tutoretza mintegiak prestatzea fakultatean...

<sup>2</sup> Egunean 6 ordu baino gehiago ez egitea

<sup>3</sup> Tutore akademikoak beharrezkotzat jotzen badu, talde-mintegiez gain, banakako tutoretzak ere egin ahal izango dira.

### 3.1. Practicumaren helburua eta ekintzak I

Bloke honen helburu nagusia ikasleak beren rol profesionalarekin ohitzea da, **behaketaren, hausnarketaren** eta praktikaren bidez, beste profesional batzuekin lankidetzan. Hortaz, helburua da ezagutzea bizitza profesionalean testuinguru jakin batean jarduteko moduen errealitatea, eta titulazioan jasotako eduki teorikoak eta praktikoak kontrastatzea.

Practicum I irakasgaia kronologikoki honela doazen bost ekintzen arabera antolatzen da:

1. Practicum I aurkeztea eta hasierako prestakuntza-mintegia (taldekoa) - praktika-batzordearekin batera.
2. Tutoretzako lehen mintegia (talde txikia), tutore akademikoarekin. Antolaketa, Praktikak hasi aurretik harremanetan jartzea.
3. Erakundeetako praktikak (banakakoak), erakundeko instruktoreak gidatuta
4. Fakultateko tutoretzarako bigarren eta hirugarren mintegiak (taldeka, mintegia osatzen duten ikasle-taldearekin eta tutore akademikoarekin batera).
5. Amaierako memoria entregatzea

#### 3.1.1. Lehenengo ekintza: Practicum I-aren aurkezpena eta hasierako prestakuntza- mintegia

Eguna: Irailaren 11n. Orduetgia eta gela helbide elektronikoaren bidez jakinaraziko dira.

#### Helburuak

- Practicum I-eko konpetentzien eta ikaskuntzaren emaitzen testuinguruan jartzea ikasleak.
- Practicum I-aren lan-metodologia aurkeztea: egitura, egin beharreko ekintzak eta mintegiak.
- Gizarte Hezkuntzaren rol profesionala ulertzea eta behaketa errazten duten tresnak ezagutzea (**I. eranskina**).

## Metodologia

Aurkezpena irailean egingo da eta aurrez aurrekoa izango da. Aurkezpena talde osoari egingo zaio (Gizarte Hezkuntzako hirugarren mailako ikasle guztiekin), praktiken dinamika zein izango den zehaztuko da. Practicuma eta lan egiteko metodologia testuinguruan kokatu ondoren, hainbat taldetan gizarte eta hezkuntzako esku hartzeak egiten dituzten profesionalek gogoeta egingo dute, gizarte hezitzaileen elkargoarekin batera, kode deontologikoaren gainean eta informazioa biltzeko tresna metodologikoen gainean. Behaketaren garrantzia azpimarratuko da, bai eta behaketa partizipatiboarena ere, hainbat taldetatik.

Prestakuntza-mintegi hau **nahitaezkoa** da. Ikasle guztiek mintegi honetan eskatzen den I. eranskina egin beharko dute, aurrez aurrekoa ez den ordutegian, eta praktiketako koordinatzaileari eman beharko diote ([naiara.ozamiz@ehu.eus](mailto:naiara.ozamiz@ehu.eus)) **irailaren 14a** beranduenez.

3.1.2. BIGARREN EKINTZA: Tutoretzako lehen mintegia (talde txikia), tutore akademikoarekin. Antolaketa, Praktikak hasi aurretik harremanetan jartzea.

Eguna: irailaren 11 edo irailaren 12a. Tutore akademikoak lehen mintegiaren ordutegia eta gela jakinaraziko dizkie ikasleei email instituzionalean.

## Helburuak

- ☒ Praktiken hezkuntza-proiektuaren helburua ezagutzea (**II. eranskina**)
- ☒ Practicum I delakoarekiko konpromisoa eta erantzukizunak ulertzea (**III. eranskina**)
- ☒ Practicuma egingo den erakundea/entitatea kokatzea.
- ☒ Behatzaile parte-hartzailearen rola eta narrazio-erregistroa eztabaidatzea (**IV eranskina**)



## Metodologia

Hasierako tutoretza-mintegi hori aurrez aurre egiten da, talde-formatuan, praktiketako beste ikasle batzuekin, eta tutore akademikoak gidatzen ditu. Metodologia aktiboa eta kooperatiboa erabiliko dira, [UPV/EHU eredu hezitzailearen arabera](#), parte-hartzea eta konpromiso profesionala eta soziala sustatzen dituzten ikaskuntzak sustatzeko. Aldez aurretik (III. eranskina), bitartean (III. eta IV. eranskinak) eta praktikak amaitzean (azken memoria eta V. eranskina) egin behar diren dokumentu guztiak azalduko dira. IV. eranskina behaketarako gida eta adierazleekin batera agertzen da.

Nabarmendu behar da tutore akademikoak aurrez ere telefonoz hitz egin duela praktikak egingo dituzten entitateekin eta instruktoreekin, eta, mintegia amaitzerakoan, **aurkezpen-gutuna** bidaliko du posta elektronikoz, hurrengo bi mintegien ordutegiarekin batera. Lehen mintegian, lehen adierazitako helburuak azalduko dira.

Garrantzitsua da, mintegia amaitu ondoren, ikasleak harremanetan jartzea praktikak egingo dituzten baliabidearekin, [irailaren 13an](#) aurkeztu eta ordua itxi ahal izateko.

### 3.1.3. HIRUGARREN EKINTZA: Entitateetako praktikak (banakakoak), entitateko instruktoreak gidatuta

Eguna: irailaren 13an hasi eta urriaren 27an amaitzen dira.

#### Helburuak:

- Gizarte eta Hezkuntza ekintzako erakundeak/entitateak, programak, proiektuak edo zerbitzuak ezagutzea.
- Gizarte Hezkuntzaren errealitate profesionalera hurbiltzea, gizarte eta Hezkuntza jardunaren behaketaren bidez.
- Gizarte Hezkuntzako lanbide ekintzarekin lotutako gaitasunak praktikan jartzea.

## Metodologia

Ikasleek, praktikak hastean, **III. eranskina** entregatu beharko dute, eta instruktorearekin batera **prestakuntza-proiektua** egin (**II. eranskina**) eta tutore akademikoari bidali **irailaren 20a**<sup>4</sup> baino lehen, hiru alderdiek (ikasleak, instruktorea, tutore akademikoa) sinatu ondoren. Horietako bakoitzak artxibatu egin beharko du. Halaber, egun berean **praktiken egutegia** egin behar du (praktikak egiteko egutegia eta ordutegiak entitate laguntzailearen ezaugarrien eta erabilgarritasunaren arabera ezarriko dira, matrikulan hautatutako ordutegia kontuan hartuta), eta instruktorearekin adostu behar du, eta, azkenik, tutore akademikoari bidali behar dio (Excel formatuan).

3.1.3. Laugarren ekintza: Tutoretzako bigarren eta hirugarren mintegiak fakultatean (taldeka, mintegia osatzen duten ikasle-taldearekin eta tutore akademikoarekin batera).

**Eguna:** lehenengo tutoretza-mintegian gainerako bi mintegiak adosten dira. Bigarrena irailaren 25etik 29ra egingo da eta hirugarrena urriaren 16tik 20ra.

*\*\*\* ikasleek tutoretza indibidualizatuak adostu ditzakete beti tutore akademikoarekin, nahitaezko tutoretza-mintegiez gain.*

## Helburuak

- Praktiken prestakuntza-proiektua eta excela berrikustea, praktiken egutegiarekin batera (irailaren 20an tutore akademikoari emandako II. eranskina eta excela).
- Ikasleak prestakuntza eta behaketa prozesuetan izan daitezkeen zalantza eta zailtasunetan gidatzea (bigarren eta hirugarren mintegiak)
- Gizarte Hezkuntzaren errealitate profesionalari buruz hausnartzea (hirugarren mintegia)

---

<sup>4</sup> Tutore akademikoak prestakuntza-proiektua posta elektronikoz edo eGela plataforma erabiliz helarazteko bidea adieraziko du.

- Azken memoriari buruzko zalantzak argitzea (hirugarren mintegia eta/edo foroak eGelan)

### Metodologia

Mintegi horiek aurrez aurre egiten dira fakultatean, talde-formatuan, praktiketako beste ikasle batzuekin, eta tutore akademikoak gidatzen ditu. Mintegiei esker, ikasleek hausnarketarako espazio heterogeneoa dute, beste ikasle batzuekin batera, eta beste testuinguru batzuetan eta beste entitate batzuetan izaten diren praktiken esperientziaz aberastu daitezke.

Garrantzitsua da ikasleak praktikak egiten ari diren entitateen testuinguruan kokatzea. Horretarako, entitateak gizarte eta hezkuntza-ekintzan duen helburua eta horien lege esparrua eta entitatesarea dokumentatu eta ulertu beharko dituzte. Hau da, hausnarketak eta eztabaidak egin beharko dituzte, praktika garatzen duten zerbitzu, proiektu edo programaren hurbilketa zehatza justifikatuz, praktikak egiten dituzten entitateak artatzen dituen taldeak edo pertsonak ikusi dutena. Horretarako, bigarren mintegian garrantzitsua da taldean kontrastatzea banakako egunerokoa, taldeko prestakuntza prozesuaren elementu nagusi gisa aztertuz. Era berean, hirugarren eta azken mintegian, erregistro horiek lantzen jarraitzeaz gain, Gizarte Hezkuntzako praktiketako deontologia profesionala eta errealitate profesionala azpimarratuko dira. Azkenik, mintegi honetan bertan Practicum I<sup>5</sup> amaierako memoriari buruzko zalantzak argitu ditzakete.

#### 3.1.4. Bosgarren ekintza: praktika-prozesuaren amaierako memoria

Eguna: azaroak 3.

#### Helburuak:

- Praktikak egiten diren erakundeako/entitateko programa, proiektua edo zerbitzua zorrotz aurkeztea.
- Prestakuntza prozesuari eta egindako ikaskuntzari buruz hausnartzea.
- Praktiketako ikasleen indargune eta ahulgune nagusiak identifikatzea.
- Praktikak zein entitatean egin diren ebaluatzea (**V. eranskina**)

---

<sup>5</sup> Praktiken eta memoriaren prozesuko zalantza orokorrak argitzeko, tutore akademikoak eGelan foro bat erabili ahal izango du.

## Metodología

Practicum I-aren Azken Memoriak (ikus 3. taula), neurri handi batean, prestakuntza egin duten praktiken entitatearen eta prestakuntza-prozesuaren testuinguruan oinarritutako bilketa eta azterketa egiteko balio du, practicumaren indarguneak, ahuleziak oro har, aztertuz eta horiei buruz hausnartuz. Memoria hori funtsezkoa da Practicum II eta Practicum IIIan aurrera egiteko.

Memoriak 20 eta 25 orri artekoa izan beharko du (azala, aurkibidea eta bibliografia kenduta...), 1,5 lerroartekoa eta EHUSans 11 letra-motakoa. Azalak Bilboko Hezkuntza Fakultatearen (UPV/EHU) logoa eta entitatearen logoa eman behar ditu goiko aldean; ikastetxean, "Practicumaren azken memoria I", ikastaroa eta entitatearen izena adierazi behar dira, eta behealdean, eskuinaldean, datu hauek agertu behar dira: egilea, tutore akademikoa, Bilboko Hezkuntza Fakultatea (UPV/EHU), gradua, entrega-data [egutegiaren](#) arabera (azaroaren 3a).

### 3. taula. Memoriaren egitura

ESTRUCTURA DE LA MEMORIA FINAL	
	Aurkibidea
1.	Memoriaren aurkezpena
2.	Hurbilketa orokorra: praktiketako entitatearen ezaugarriak eta euskarriak
2.1.	Entitatearen datu deskribatzaileak (entitatearen jatorria eta bilakaera)
2.2.	Entitateak lan egiten duen arlo espezifikoak eta finantzaketa-iturriak
2.3.	Lege-esparrua eta organigrama
3.	Hurbilketa zehatza: praktika garatzen den zerbitzua, proiektua edo programa
3.1.	Xedeak eta helburuak
3.2.	Arreta jasotzen duten pertsonen profila
3.3.	Lanbide-taldearen ezaugarriak eta eginkizunak zehaztea
3.4.	Programan esku hartzeko metodologia
3.5.	Baliabidea ingurune komunitarioarekin koordinatzea
4.	Praktiken prozesuaren azterketa eta hausnarketa
4.1.	Landutako eta garatutako kompetentzia profesionalak, praktikan garatutako zereginekin eta ekintzekin lotuta. *prestakuntza-proiektua
4.2.	Hautemandako indargune, zailtasunak eta hobekuntza pertsonalerako bide posibleak
4.3.	Deontologia profesionala praktketan. Non ikus daiteke aplikatua?
	*4.2 eta 4.3 puntuak egiteko, egunerokoa irakurtzea eta aztertzea gomendagarria izango da.
5.	Erreferentzia bibliografikoak
6.	Eranskinak
6.1.	Hasierako prestakuntza mintegiari buruzko gogoeta fitxa.
6.2.	Prestakuntza-proiektua, hiru aldeek sinatuta (Excel egutegiarekin batera)
6.3.	Practicumarekiko konpromisoa eta erantzukizuna.
6.4.	Egunerokoaren erregistroa taula.
6.5.	Ikasleen praktikak ebaluatzea.

#### 4. PRACTICUM I-AN BETE BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

Eranskinak nahitaez bete beharreko dokumentuak dira, eta ikasleen ardura da horiek entregatu eta memoriari eranstea. Practicuma ondo garatzeko kalitatea eta irizpide komunak eman nahi dituzte.

##### *Praktikak hasi aurretik bete beharreko eranskinak*

Ikasleek I. eranskina egin eta practicumeko I. praktika-koordinatzaileari bidali behar diote (naiara.ozamiz@ehu.eus). Gainera, azken memorian erantsi behar duzu. Praktikak egin baino egun bat lehenago III. eranskina inprimatzea eta sinatzea, lehenengo egunean praktiken instruktoreari emateko. Eranskin hori ere azken memorian erantsi behar da.

##### *Praktiken hasieran bete beharreko eranskinak*

Lehenengo egunean, III. eranskina entregatuko du, eta egunkaria egingo du (IV. eranskina). Lehenengo astean, praktiketako ikaslearen prestakuntza-proiektua bete beharko du (II. eranskina), excel egutegiarekin batera. Dokumentu hori inplikaturako hiru aldeek sinatu behar dute (ikaslea, tutore akademikoa eta instruktorea). Aurkezteko azken eguna irailaren 20a da, eta gainbegiratuta eta zuzenduta azken memoriaren eranskinei erantsiko zaie.

##### *Praktikak amaitzean bete beharreko eranskinak*

Praktikak amaitzean, praktiketako instruktoreak ebaluazio-errubrika bete eta sinatu behar du, eta tutore akademikoa helarazi. Dokumentu hori ez da azken memorian erantsi.

Praktiketako ikasleek, bestalde, V. eranskina bete beharko dute, praktikaren ebaluazio orokorrari buruzkoa. Eranskin hori azken memoriari erantsiko zaio.

## 5. PRACTICUM I-AREN EBALUAZIOA

Ebaluazioa egiteko, ikasleek fakultatean eta praktika-zentroan egin beharreko jardueretan egindako lana eta jarraitutako prozesua hartuko dira kontuan.

Practicumaren ebaluazio positiboa lortzeko, ezinbestekoa da fakultatean garatutako prozesua (amaierako memoria) eta praktiketako erakundean garatutakoa gainditzea (ikus 4. taula).

**4.taula.** Ponderazioa Practicum I-aren azken ebaluazioan.

Ebaluazioa agentea	Ebaluazioa	Emandako ehunekoa
FEB tutorea	Mintegiak Azken memoria	60%***
Entitateko instruktoea	Ebaluazio errubrika	40%**
Practicum I-eko koordinatzailea Gizarte Hezkuntzan	Hasierako prestakuntza- mintegia – I. eranskina entregatzea	Zereginik eza*

\*\*\* Fakultateko tutoretza eta jarraipen-mintegietara joaten ez bada, azken notan puntu bat murriztuko da falta bakoitzeko (gehienez 3 puntu). Mintegiak presentzialak izan behar dira.

\*\* Praktiketarako gai ez diren ikasleek berriz egin beharko dituzte praktikak praktikei dagokien aldian (horretarako, berriz matrikulatu beharko dira ikasgai horretan). Hau da, datorren ikasturtean, practicum I egutegian. Inola ere ezingo dira aurreratu. Atal honetan gai izateak ez du irakasgaia gainditzetik salbuesten, alde guztiek gaindituta egon behar baitute.

\* hasierako prestakuntzara ez joateak eta I. eranskina ez egiteak amaierako nota puntu 1 murriztea ekarriko du.

### **Praktikak etentzat joko dira honako kasu hauetan:**

- Praktika-baliabidera justifikatu gabeko bi ez-bertaratze gertatzen direnean, irakasgaia bertan behera geratuko da eta, beraz, praktika guztiak errepikatuko dira.
- Errekurtsoaren tutoreak 10etik 5 puntu baino gutxiago ematen baditu, irakasgaia eten egingo da eta, beraz, praktikak oso-osorik errepikatu beharko dira.
- Alderdiak integratu ondoren, Fakultateko tutoreak ikaslearen jarduera nahikoa ez dela ebaluatzen badu, eten egingo da irakasgaia. Ikasleak bigarren deialdi batera aurkeztu beharko du (ezohiko deialdia), eta memoria berri bat egin beharko du. Kasu horretan, irakasgaia gainditzen ez badu, praktikak osorik errepikatu beharko ditu hurrengo ikasturtean.

*\*\*\* txostenean hizkuntza-gaitasuneko eta/edo idazkera akademikoko maila nahikorik agertzen ez bada, EZ GAI kalifikazioa emango zaio.*

### **Praktikak aurkeztu gabekotzat joko dira:**

Ikaslea irakasgaiari matrikulatuta dagoenean, baina praktiketako baliabidera joaten ez denean edo praktiketako dekanordearen berariazko baimenik gabe eta baliabide hori eta fakultateko tutore bat esleitu gabe joaten denean, bai eta azken memoria deialdi arruntean horretarako ezarritako epean aurkezten ez denean ere.

**\*\*\* Plagioa.** Plagioaren susmoaren aurrean, azken memoria baztertzea ekar dezake eta, ondorioz, practicuma ez onartzea. Etika akademikoari buruzko UPV/EHUren [protokoloa](#) aplikatuko da.

## 6.ERANSKINAK

### I.ERANSKINA

#### Prestakuntza-mintegiari buruzko hausnarketa-fitxa

<b>Izen abizenak:</b> <b>Ikasgelako taldea:</b> <b>NAN:</b> <b>Email instituzionala:</b>
<b>Data:</b> 2023ko irailaren 11
Landu duzuen gaia:
Zein izan da zure ekarpena? (ekarpenik egin ez baduzu, arrazoia justifikatu beharko duzu):
Zer jaso duzu besteengandik?



## II.ERANSKINA

### GIZARTE HEZKUNTZA GRADUA (PRACTICUM I)

2023/2024 ikasturtea

#### Prestakuntza-proiektua

##### **Ikaslea**

Izen-abizenak
NAN zenbakia

##### **Tutore akademiko gisara arituko den aldetik**

Izen-Abizenak:
NAN zenbakia:

##### **Instrukture gisa eta XXXXXXXXXXXXXXXXXXXX elkartearen ordezkaria den aldetik**

Instrukturearen izen-abizenak
NAN zbkia.
Tel:
e-mail:

UPV/EHuren eta XXXXXXXXXXXXXXXX erakunde horren arteko Hezkuntza Lankidetzako Hitzarmenean ezarritakoaren arabera, honako informazioa adierazten da:

1. UPV/EHUK emandako titulazioa: Gizarte Hezkuntzako Gradua
2. Jarduerak egiteko lekua: Bilboko Hezkuntza Fakultatea (UPV/EHU)
3. Praktiken Programaren arduraduna: Maria Dosil Santamaria
4. Hezkuntza-helburuak:

<b>Ikasleak eskuratu beharreko berariazko gaitasunak:</b>
- Gizarte eta Hezkuntza arloko esku-hartzearen oinarri teorikoak (psikologikoak, soziologikoak eta pedagogikoak) ezagutzea eta ulertzea.
<b>Ikaskuntzaren emaitzak</b>
-Testuinguru errealetan esku hartzeko prozesuetan sortzen diren dilemak, egoera problematikoak eta gorabehera kritikoak idatziz erregistratzea.

5. Egin beharreko jarduerak edo zereginak:

<b>Garatu beharreko jardueren edo zereginen deskribapena</b>
1-
2-
(...)

6. Praktiken programaren iraupena:

\_\_\_\_\_ -tik \_\_\_\_\_ -ra

7. Praktiken ordutegia:

Goizez  eta/edo Arratsaldean

Gauetan

8. Orduak guztira: XXXXXX

9. Ikasleen zerrenda (ikasle bat baino gehiago izanez gero, horietako bakoitzari esleitutako tutorea eta instruktorea adierazi beharko dira):

Ikaslea (NAN, abizenak eta izena)	Tutore akademikoa	Instruktorea

Horren bi ale sinatu dira, \_\_\_\_\_ -an 202\_\_\_\_\_ -ko \_\_\_\_\_ -an.

UPV/EHU-tik

ERAKUNDETIK

(Tutorearen sinadura eta zigilua)

(Instruktorearen sinadura eta zigilua)

PRACTICUM II Ikaslea

(Sinadura)

\*\*\**excel erantsi*

### III.ERANSKINA

#### Practicumarekiko konpromisoa eta erantzukizunak I

\_\_\_\_\_Jaun/andrea  
\_\_\_\_\_ -NAN-arekin eta TELEFONOA \_\_\_\_\_,

Bilboko Hezkuntza Fakultateko \_\_\_\_\_ kurtsoko eta \_\_\_\_\_ taldeko ikaslea Gizarte Hezkuntzako Titulazioan, praktiketako zentroaren araudia errespetatzeko, zentroarekin zerikusia duten datuen eta pertsonen konfidentziasuna gordetzeko eta zentroaren dokumentaziorik ez erabiltzeko konpromisoa hartzen du, erakundearen<sup>6</sup> berariazko baimenik gabe.

Era berean, ez da irudirik grabatuko, fotografiatuko edo argitaratuko praktikak egin bitartean edo ondoren<sup>7</sup>.

Leioan 202\_\_ko \_\_\_\_\_-aren \_\_\_\_\_-an

SINADURA

<sup>6</sup> Memoria egitean, ezinbestekoa da pertsonak identifika ditzaketen datu pertsonalak (izenak, helbideak, etab.) ez erabiltzea. Horregatik, esperientziak eta hausnarketak errazago idazteko, fikziozko izenak erabili behar dira.

<sup>7</sup> Edozein argitalpen izan daiteke gai ez izateko eta praktiketatik kanporatzeko arrazoia, eta hurrengo ikasturteko eskola-aldi berean errepikatu beharko dira.

## IV. ERANSKINA

### **Behaketarako gida eta adierazleak eta erregistroaren taula**

#### **Zer pentsatua ematen dizuten beste kontu batzuk idazteko gida.**

ADIBIDEZ, hezitzaileei arretaz entzuten diedanean, prestakuntzako mintegietara joaten naizenean, erakunde bati buruzko informazioa jasotzen dudanean, gainerako kideekin mintegian partekatu eta eztabaidatzen dudanean, beste pertsona, egoera edo hedabide batzuekin harremana dudanean... neure burua kokatuko dut, honako gauza hauetan pentsatuz:

Zer gustatu zaidan eta zer ez. Zerk harritu nauen. Zerk iradoki, blokeatu, kezkatu nauen. Zerk eragin dizkidan zalantzak edo galderak. Zeri buruz eztabaidatu nahi nukeen. Zeri buruzko informazioa jaso nahi dudan. Nola sentitu naizen egoera horretan. Zer ez dakidan interpretatzen. Hainbat gauzari buruzko iritzia. Zer egiten ikasi behar dudan. Zer bururatu zaidan. Zer egiten zaidan erraza edo zaila. Zeren zergatia ulertu dudan. Zeri buruz hitz egin behar dudan. Zeri iritzi diodan interesgarria. Zeri buruzko artikulua interesgarria aurkitu dudan. Zeri buruz irakurri nahi dudan. Telebistan ikusitakoak zer iradoki didan. Irratian entzundakoak zer pentsarazi didan. Zer azaldu didaten. Zer aztertu nahi nukeen berriro. Zer prestatu dudan. Taldean zer esku-hartze izan dudan. Zer sentitu dudan. Zer ikusi dudan. Zer egin dudan erraz eta zer zail. Zer ez nuen espero. Topaguneetan izandako jarrera dela-eta, zer pentsatu dudan. Zer egoeratan ez dudan jakin zer egin. Zer erantzun eman dudan. Lanaren aurrean zer aukera dudan.

Gogoan izan gizarte- eta hezkuntza-errealitatearekin kontaktuan zauden aldian laguntzeko gida dela hau: errealitate hori nolakoa den, bertan nola lan egiten den, zer zailtasun dituen, zailtasun horiek nola ebazten diren... jakiteko hainbat erregistro izatea da asmoa. Ez dezagun ahaztu, beste edozein gidak bezala, honek ere ez dituela jasotzen Gizarte Hezkuntza alorreko lanaren errealitatea osatzen duten alderdi guztiak. Datuak biltzeko eta lan-esparru hori behatzeko bide posible bat zehazten du; hori baino ez. Horregatik, beste adierazle batzuei adi egon beharko zara (idazkiak, liburuxkak, komentario ez formalak, landa-laneko oharrak, inpresio pertsonalak...). Horietatik ideiak hartuko dituzu edo hausnarketarako bidea emango dizute gizarte hezkuntzaren egitekoari buruz eta zuk zeuk arlo profesional horretan duzun egitekoari buruz. Kontuan izan behar dugu, halaber, gizarte arloari buruzko datuak jasotzeko ez dagoela horri buruz galdetzea bezalakorik. Halere, galderak zehazteko unean, nahi izanez gero, gida hau erabil dezakegu landuko ditugun eremuen erreferentzia gisa.

#### **Praktika-aldian datuak jasotzeko behaketa-gida**

LAN ESPARRUAREN EZAUGARRIAK

- ERAKUNDEA/ELKARTEA/PROGRAMA/ENTITATEA:
  - Nolakoa da lan-esparrua (nor hartzen dute, zer helburu edo asmo dituzte, zer lan egiten dute hezitzaileek) eta nolako esku-hartzea egiten dute euren jardueraren helburu diren pertsonekin (zer arreta-mota eskaintzen dute)?
  - Esparru horretan ari diren profesionalak behar dituzten trebetasunak.
  - Profesionalen arteko lan-moldeak (profesionalen arteko harremanak) esparru horren barruan, eta beste esparru batzuetako profesionalekin, beste Erakunde batzuekin, eta abar.
  - Harremana inguruarekin: komunitatea. Zer harreman mota dute (distantzia, lankidetzatza), eta zer mailatan?
  - Beste erakunde, organismo batzuekiko harremana. Nazioartean, Europako Programetan parte hartzen du? Nazioarteko sareren bateko kidea da?
  - Erakundearen barruko egiturak, eta antolakuntza-eredua (hierarkia, koordinazioa, kudeaketa-erak, komunikazio-prozesuak, barne-araudiak...).
  
- JARDUERAREN XEDE DIREN PERTSONAK: Ezaugarri psikosozilogikoak (adina, sexua, hizkuntza, gizarte-jatorria eta jatorri geografikoa...) eta berezitasunak. X
  - Xede diren pertsonen prestakuntza-ekintzan duten parte-hartzea. Programan/ekintzan dagoen inplikazio-maila, parte hartzeko bideak...
  
- ZER BALIABIDE BEHAR DA ETA ZER BALIABIDE DAGO:
  - Baliabide ekonomikoak (diru-laguntzak), giza baliabideak, eskualde-baliabideak... eskuratzeko moduak.
  - Eskura dauden espazio-baliabideen eta baliabide ekonomiko, material eta pertsonalen ezaugarriak. Baliabide horiek lan-dinamikan eragiten dituzten zailtasunak eta eskaintzen dituzten aukerak.
  - Zabalkunderako materialak: aldizkariak, liburuak, zirkularrak, publizitatea... Hedabideen erabilera (prentsa, irratia, TB, zinema, Internet...).
  
- ESKU-HARTZEKO PROZESUAK PLANIFIKATZEKO, ABIAN JARTZEKO ETA EBALUATZEKO PROZESUAK:
  - Esku-hartzearen xede diren pertsonen arreta zuzena eskaintzen ez zaienean, zertan ematen den lan denbora eta zer jarduera egiten den (prestakuntza, koordinazioa,...).
  - Jarduerak prestatzeko moduak (taldeka, banaka, malgutasun-maila, tokiko esparruarekiko harremana...).
  - Esku-hartzearen xede diren pertsonen harremana: elkarrekintzaren nolakotasuna, harreman motak (eguneko eta asteko ordutegiak, urteko egutegiak), harreman estiloak (elkarrekintzakoa, zuzendua, zuzendu gabea), diziplina, arauak ezartzea, funtzionamendu-arau orokorrak.
  - Esku-hartze prozesuaren hurbilpena: ezaugarri metodologikoak eta zereginak nahiz ekintzan bete beharreko rolak zehazteko erabiltzen diren jarraibideak.
  - Ebaluazio-sistema: ebaluatzen diren alderdiak (prozesua, antolakuntza-lanak, erakundeko dinamika,...), prozesuaren ezaugarriak, erabilitako teknikak, ebaluatzen den uneak (diagnostikoa, jarraipena, azken balorazioak), txostenak aurkeztea.

- PROFESIONALAK AUKERATU ETA PRESTATZEKO MODUA:
  - Langileak (profesionalak nahiz boluntarioak) aukeratzeko irizpideak. Irizpideak ezartzeko eta gauzatzeko arduradunak.
  - Nola lantzen dute etengabeko prestakuntza esparru horretan lan egiten duten profesionalak?
  - Nola lantzen dituzte boluntarioak prestatzeko sistemak (finantzazioa, edukiak, arduradunak, prestakuntza-aldiak, egiten duten lanaren jarraipena)?
  
- IKERTZEKO PROZESUAK ESPARRUAN ETA ERAKUNDEAN:
 

Ikertzen ari diren alderdiak. Horretarako erabiltzen dituzten azterlanak

BEHAKETA ADIERAZLEAK <sup>8</sup>			
<b>ERABILTZAILEAK</b> Parte hartzea Jatorria Adina Keinuak Portaera Harremanak Motibazioa Gaitasunak Ahulguneak Beharrak Bizimoduak/ohiturak Nahiak Egoera emozionala Autoestimua	<b>HEZITZAILEAK</b> Gaitasunak Komunikazioa Betebeharrak Harremanak Lan taldean eta banakako egiteko gaitasunak Baloreak Motibazioa Parte hartzea Jarrera aktiboa Asertibotasuna Ardurak Inplikazioa Errespetua Enpatia Konfidentzialtasuna Bokazioa Konfiantza Zeharkakako lana (kudeaketa) Tresnak	<b>GU PRATIKETAKO IKASLE GISA</b> Inplikazioa Ardura Zailtasunak Gaitasunak Errespetua Jakin mina Erosotasuna Moldagarritasuna Motibazioa Autokonfiantza Autoezagutza Asertibotasuna Enpatia Baloreak Komunikazioa Iniziatiba	<b>TESTINGURUA/KOMUNITATEA</b> Babesa Baliabideak Kokapena Bizilagunen ezaugarriak Giroa Harremanak Zentroaren kokapena (isolatua/komunitatean oso txertatua)
<b>ERAKUNDEA</b> Funtzionamendua Baloreak Baliabideak Historia Harremanak (beste erakundeekin...) Metodologia Helburuak	<b>PROGRAMA/ZERBITZUA:</b> Helburuak Metodologia Hartzaileak Baliabideak Harremanak Denboralizazioa Baloreak Ekintzak	<b>ADMINISTRAZIOA</b> Kudeaketa Inplikazioa Erantzukizuna	<b>LEGEA</b> Ezagutzea Egonez gero nola betetzen den.

Egunerokoa
<b>Data eta ordua:</b>
*** egunero idazten da, egun osoan eta lehen pertsonan Tatxoiak egon daitezke Deskriptiboa da Pasadizoak biltzen ditu, baina batez ere hausnarketak Proposamenak eta emozioen alderdiak adierazten ditu. <b>*** garrantzitsua da sintetizatzea</b>

<sup>8</sup> Gidaliburua eta adierazleak ez dira emango memoriaren eranskinetan, orientagarriak dira.

## V. ERANSKINA

### Praktiken ebaluazioa- Ikasleak

#### I. DATU OROKORRAK

<b>Praktikaren izena</b>	
Erakunde laguntzailea (praktika-zentroa)	
Esleituta egon den erakundearen saila	
Praktika Programaren arduradunaren izen-abizenak	María Dosil Santamaria
Instruktorearen izen-abizenak	
Tutorearen izen-abizenak	

#### II. IKASLEAREN DATUAK

Ikaslearen izen-abizenak	
Zein titulaziotan matrikulatuta dagoen	
Ikasturte akademikoa	

#### III. AZKEN MEMORIA

<b>EGINDAKO ZEREGINEN DESKRIBAPEN ZEHATZA ETA HORIEN BALORAZIOA</b>				
<i>(Balorazioan, unibertsitate-ikasketei dagokienez eskuratutako ezagutzak eta gaitasunak hartuko dira kontuan)</i>				
<b>Zereginen zerrenda:</b>	<b>Oso ona</b>	<b>Ona</b>	<b>Hala-holakoa</b>	<b>Txarra</b>
1.				
2.				
(...)				
<b>Hala badagokio, praktikak egitean planteatutako arazoen zerrenda zehatza</b>	<b>Ebazpenean jarraitutako prozedura</b>			
<i>(Arazoen zerrenda)</i>				
<b>Praktikaren ekarpena ikaskuntzaren arloan Hobetzeko iradokizunak</b>				
<b>Praktikak zuzenean edo zeharka eragin al dezake lan-kontratu bat enpresa berean edo harekin zerikusia duen beste batean?</b>	Bai		Ez	
<b>PRAKTIKAREN EBALUAZIO OROKORRA</b>	<b>Oso ona</b>	<b>Ona</b>	<b>Hala-holakoa</b>	<b>Txarra</b>

(Data eta Ikaslearen sinadura)